



Familia estimatuak:

Hezkuntza Departamentuak Covid-19aren inguruko arau eta jarraibide batzuk ezarri baditu ere, institutuak egokitu egin ditu gure egoera eta ezaugarrietara. Arau horiek aldatu ahalko dira, pandemiaren bilakaerak agintzen baitu hor.

INSTITUTUAREN ETA FAMILIEN ARTEKO HARREMANAK

- Irailean zehar, tutoreak familiekin jarriko dira harremanetan, azaltzeko zein den unean uneko osasun-egoera eta nola eginen dion aurre institutuak covid-19aren balizko lau egoerei.
- Ikastetxera joan aitzin, familiek **aldez aurretiko hitzordua** eskatu behar diete tutoreei, orientatzaileei edota zuzendaritza-taldeko kideei.
- Ohiko **hartu-emanak EDUCA**ren bidez eginen dira. Hortaz, familiek eta beren seme-alabek garbi izan behar dituzte beren EDUCAko erabiltzaile eta pasahitzak, eta maiztasun handiz sartu beharko dira bertan.
- Tutoreak familiekin jarriko dira harremanetan Covid-19arekin loturiko edozein kontutarako, eta, beharrezkoa denean, zuzenean idazten ahal diote institutuko **Covid-19ko koordinatzailea den Cristina Pinillos** lankideari:
cpinille@educacion.navarra.es

PANDEMIAREN LAU EGOERAK

- **1. egoera:** "Normaltasun berria" deitu diotena. Kutsatzeko arriskua nahiko baxua da, eta agerraldiak kontrolpean izateko ahalmena, handia. Aurrez aurreko klaseak, Covid-19ak eakutzen dituen neurriak ezarririk.
- **2. egoera:** Osasun-autoritateen erabakia da, eta sektoreen blokeo indartua ezarrikoa da. Klase batzuk aurrez aurrekoak izaten ahal dira, eta bertze batzuk, ez.
- **3. egoera:** hau ere osasun-autoritateen erabakia da, eta ikastetxe guztien itxiera propositzen ahal dute; sektoreak erabat blokeatuko lituzkete. La educación puede ser semipresencial. Klase batzuk aurrez aurrekoak izaten ahal dira, eta bertze batzuk, ez.
- **4. egoera:** ikastetxe guztien itxiera. Osasun-autoritateek ikastetxe guztiak ixtea erabakiz gero, bertan beheera geldituko da aurrez aurreko irakaskuntza.



IKASLEAK HIRU EREMU AHALIK ETA IRAGAZGAITZETAN BANATUKO DIRA

- Hona hiru eremu handiak:
 - Batxilergoa: badu bere eraikin propioa
 - 3. eta 4. DBH
 - 1. eta 2. DBH
- Eremu bakoitza bertze bi azpieremutan banatzen da, sarbide, komuna zein pasabideen erabilerari dagokienez.
- Atsedendietarako patioek eta atek ere eremukako banaketa izanen dute.
- Saiatuko gara eremu bateko ikasleek ahalik eta kontaktu gutxien izan dezaten bertze eremuetakoekin. Hori saihesteko, txandakako sarrera-irteerak izanen dira.
- Irakasleok, ahal duzuen heinean, eremukako banaketak errespetatzen saiatuko zarete.
- Hezkuntza Departamentuak ezarritako **ratioak** mantenduko dira:
 - 30 DBHn
 - 33-35 batxilergoan
- IES Tierra Estella-Lizarralde BHIn **bikoizketak** egiten ari gara ratioak jaisteko:
 - 27 baino gutxiago DBHn
 - 28 baino gutxiago batxilergoan

IKASLEEI ZUZENDURIKO ARAU OROKORRAK

- Ikasleak ezin dira institutura etorri, covid-19arekin lotzen ahal diren sintomak badituzte: sukarra, giharretako mina, lixeriketako arazoak, eta abar. Hori ez betetzea arduragabekeria handia litzateke familiaren aldetik, eta beharrezkoak direen neurriak hartuko lirateke. Ikasle horiek ez dira inondik inora ikasgeletan egonen.
- Ikasleak **beti eserleku bera** erabiliko du **autobusean**.
- Autobusez heldu diren ikasleak ikaaetxera sartuko dira zuzenean, eta ezin izanen dira bertatik atera.
- Errespetatu beharko dute ikastetxeko **señalizazio** berezia.
- **Maskara nahitaez** eraman behar da eskola-eremu osoan eta autobusean.
- Autobusetan eta ikasgeletan ikasleen banaketa-mapa batzuk egonen dira, aztarnariak hobeki egin dezaten bere lana.
- Ikasleak bere motxilan eraman behar duena:
 - 1. Maskara (eta ordezeko bat)
 - 2. Gel hidroalkoholikoa
 - 3. Spray desinfektatzaile txiki bat, lixibarik gabea (urarekin arinduriko alkohola izaten ahal da) eta zapi bat. Ezin da toxikoa izaten ahal diren produktuak ekarri.
 - Iturriak ezin direnez erabili, komeni da ura etxetik ekartzea.
- **Eskuak garbitu** beharko dituzte ur eta xaboiarekin edota gel hidroalkoholikoarekin autobusa erabili aitzinetik eta ondotik, eta erabili dituzten ikasgeletan eta



bertzelako eremuetan.

- Badira **gel hidroalkoholikoak** ikastetxeko eremu guztietan.
- Ikasleak gorde beharko ditu ikaskideekiko eta irakasleekiko gutxieneko distantziak.
- Ikasleak beti **leku bera** erabiliko du ikasgelan.
- Ikaslea ezin da pasabidera atera, eta ez da ikasgelan barna ibiltzen ahal; ez du materialik partekatuko.
- Ikasle batek bere lekutik mugitu behar badu, irakasleari eskatuko dio baimena.

IKASGELETAKO ARAUDIA

- **Maskara nahitaez** eraman behar dute.
- Ikasleak **beti leku bera** erabiliko.
- Ikaslea ezin da pasabidera atera, eta ez da ikasgelan barna ibiltzen ahal; ez du materialik partekatuko.
- Ikasgelak egurastu beharko dira hasieran eta bukaeran 10 minutuz gutxienez.
- Ahal delarik, utzi leihoak zabalik.
- Ikasleak ezin izanen dira ikasgelatik atera bi klaseren arteko tartean. Soilik mugituko dira bertze ikasgela batera joanen diren ikasleak.
- Garbiketa-zerbitzua indartu arren, ez da nahikoa izanen; beraz, ikasleak beti garbituko ditu erabiliko dituen aulkia eta mahaia.

IKASLEEN KOMUNEN ERABILPENAREN INGURUKO ARAUDIA

- Ikasleak komunera joan nahi badu klasean edota bi klaseren tartean, irakasleari eskatuko dio baimena.
- Atsedendietan ikasleak komunera joan ahalko dira, baina gehiegizko kopuruak errespetatu beharko dira. Komuna beta badago, ilara bat egin beharko da, baina gutxieneko distantziak gorderik. Atsedendietan, ikasleak dagozkien eremuetan egon behar direnez, soilik joan ahalko dira bertako komunetara.
- Garbiketa-zerbitzua indartu arren, ez da nahikoa izanen; beraz, ikasleak beti garbituko du erabili duen komuna.
- Ikasleak eskuak garbituko ditu komunera sartu aitzin eta ondoren.
- Batxilergoko eraikineko lehen solairuko komunak neska zein mutilendako dira, baina komun itxietan seinaleak egonen dira, jakiteko neskendako ala mutilendako diren. D ereduko ikasleek erabiliko dute beren ikasgelen ondoko komuna. Eta A-G eredukoek beren ikasgeletatik hurbilen dutena. Eraikin horretako beheitiko solairuan dagoen komuna erabiliko da batxilergoko ikasleen atsedendietan, bikoizketetan eta IKT zein Teknologian.



IKASLEEN SARRERA ORDUAK IKASTETXEAN

Sartzean, ikasleek **BETI** errespetatu beharko dituzte patioko, eskaileretako eta pasabideetako geziak.

- Autobusez etortzen diren **1. eta 2. DBHko** ikasleak 8:00etan sartuko dira ikastetxean, eta ikasgelan egonen dira irakaslearen esperoan.
- Autobusez etortzen diren **3. eta 4. DBHko** ikasleak 8:10ean sartuko dira ikastetxean, eta ikasgelan egonen dira irakaslearen esperoan.
- Autobusez etortzen diren **batxilergoko** ikasleak 8:15ean sartuko dira ikastetxean, eta ikasgelan egonen dira irakaslearen esperoan. D eredukoek larrialdietarako eskailerak erabiliko dituzte.
- **Lizarrako ikasleak**, DBHkoak zein batxilergokoak, 8:15ean sartuko dira ikastetxean, eta ikasgelan egonen dira irakaslearen esperoan.

IKASTETXEKO IRTEERAK

Ateratzean ere ikasleek **BETI** errespetatu beharko dituzte patioko, eskaileretako eta pasabideetako geziak.

- 1. eta 2. DBHko ikasleak 14:20an aterako dira ikastetxetik.
- 3. eta 4. DBHko ikasleak 14:25ean aterako dira ikastetxetik.
- A-G ereduetako batxilergoko ikasleak 14:25ean aterako dira ikastetxetik.
- D ereduko batxilergoko ikasleak 15:15ean aterako dira ikastetxetik, eta ortziraletan 14:25ean.

MAILA	SARBIDEA	SARRERA	IRTEERA
1. DBH (A-G ereduak) UCE	Sarrera nagusia	8:00 - 8:10	14:20
1. DBH	Bigarren sarrera	8:00 - 8:10	14:20
2. DBH	Bigarren sarrera	8:00 - 8:10	14:20
2. PMAR	Bigarren sarrera	8:00 - 8:10	14:20



PCA	Bigarren sarrera	8:05 - 8:15	14:20
3. PMAR	Bigarren sarrera	8:05 - 8:15	14:25
3 DBH	Sarrera nagusia	8:05 - 8:15	14:25
4. DBH	sarrera nagusia	8:05 - 8:15	14:25
4. DBH (A-G ereduak)	Bigarren sarrera	8:05 - 8:15	14:25

MAILA	SARBIDEA	SARRERA	IRTEER A
1. Batxilergoa (A-G ereduak)	Batxilergoko atea	8:15	14:25
2º Batxilergoa (A-G ereduak)	Batxilergoko atea	8:15	14:25
1. Batxilergoa (D ereduak)	Batxilergoko larrialdietarako atea	8:15	14:25
2. Batxilergoa (D ereduak)	Batxilergoko larrialdietarako atea	8:15	14:25



SARTZEKO ATEAK






BATXILERGOKO ERAIKINEAN SARTZEKO ATEAK



PUERTAS DE ACCESO POR GRUPO - TALDEKAKO SALBIDERAKO ATEAK






IKASLEEN ATSEDENALDIAK

- Patioan ere ikasleek **maskara** jantzi beharko dute nahitaez, eta soilik kentzen ahal dute jatean edota edatean, baina jan-edan hori beti nonbaiten jarriak egin behar dute.
- Errespetatu beharko dute maila bakoitzari dagokion **eremua**.
- Ikasleak ezin dira **kafetegian** sartu. Bertako produktuak erosi nahi badituzte, kanpoaldean dagoen salmahaira joanen dira, eta ilara egokian egonen dira, metatu gabe eta gutxieneko distantziak gordez. Ikasleek ez dute beren jan-edana partekatuko ikaskideekin.

MAILAK	Lehen atsedena	Bigarren atsedena
<ul style="list-style-type: none">• 1. DBH• 2. DBH• 2. PMAR• UCE	<ul style="list-style-type: none">* Ikasgelatik atera: 9:55* Ikasgelara itzuli: 10:20	<ul style="list-style-type: none">* Ikasgelatik atera: 12:05* Ikasgelara itzuli: 12:30
<ul style="list-style-type: none">• 3. DBH• 4. DBH• PCA• 3. PMAR	<ul style="list-style-type: none">* Ikasgelatik atera: 10:05* Ikasgelara itzuli: 10:25	<ul style="list-style-type: none">* Ikasgelatik atera: 12:15* Ikasgelara itzuli: 12:35
<ul style="list-style-type: none">• Batxilergoa	<ul style="list-style-type: none">* Ikasgelatik atera: 10:05* Ikasgelara itzuli: 10:25	<ul style="list-style-type: none">* Ikasgelatik atera: 12:15* Ikasgelara itzuli: 12:35



PROKOLOA BALIZKO COVID-19KO KASU BATEN AITZINEAN

COVID-19arekin lotzen ahal diren sintomak izanez gero:

- Abisatu behar zaio **zaintzan dagoen irakasleari**.
- Larrialdietako zaintzan ari den irakasleak **FFP2 maskara** jarriko du —atezainen hiru postuetan daude eskuragarri—, eta bertze maskara bat emanen dio ikasleari, berak ere jartzeko.
- Irakasleak **erizaintzara** lagunduko du ikaslea, eta, gutxieneko distantziak gorderik, zain geldituko da bere gurasoak edota tutore legalak iritsi arte.
- Irakasleak —atezainen laguntza izanen dute horretarako— ikaslearen **familiari deituko dio**. Ikasleak sintoma larriak edota hats hartzeko arazoak baditu, 112ra deitu beharko da.
- Gurasoak edota tutore legalak iristean, gogorazi beharko zaie zeintzuk diren jarraibideak: ez da haien artean kontaktu fisikorik egonen, eta beren **Lehen Mailako Arretako Zentrora** deitu beharko dute.
- Irakasleak gertatukoaren berri emanen dio **zuzendaritza-taldeari**.



PROKOKOIA BALIZKO COVID-19KO KASU BATEN AITZINEAN ZUEN ETXEETAN

Eskola-garraioa erabili aurretik edota ikastetxera joan aurretik, egunero aztertuko dugu ea gure seme-alabek baduten COVID-19arekin lotzen ahal den sintomaren bat. te escolar o al centro comprobaremos cada día síntomas compatibles con COVID.

ZER EGIN SUSMOAK DAUDENEAN:

- Arreta orduetan, deitu zuen Lehen Mailako Arreta Zentrora.
- Arreta ordutegitik kanpo, deitu 948 290 290 telefono-zenbakira.
- Larrialdi egoeran 112ra deitu.
- Etxean gelditu.
- Ez bidali seme-alabak institutura.
- Deitu institutura eta abisua eman.

AZTERTU BEHARREKO SINTOMAK

- Sukarra
- Eztula
- Hats hartzeko arazoak
- Sudurreko kongestioa
- Eztarriko mina
- Sabeleko mina
- Goitika egitea
- Beherakoa
- Ongieza
- Giharretako mina